

XXVII. HAUR LITERATUR LEHIAKETA 2026. ARAUAK

Literatur Lehiaketarako Batzordeak Antsoaingo Udalaren laguntzarekin deia egiten du euskarazko eta gaztelaniako Haur Literatur Lehiaketarako. Antsoaingo haurrek eta ikastetxe hauetako ikasleek parte har dezakete: Ezkaba, Doña Mayor, Esclavas del Sagrado Corazón eta Cardenal Ilundain.

SAILAK

Lehiaketa hiru ikasmila hauen arabera egingen da:

A) LEHEN HEZKUNTZA. LEHEN ZIKLOA, 1. eta 2. mailak.

Edukia: marrazkia izanen da lehiaketako edukiaren funtsa. Haurrek marrazkien bidez gai libreko ipuin bat egingen dute, eta heldu baten laguntzaz egindako gidoi txiki bat erantsi ahal izanen diote.

Luzera: 2 orri alde batetik, gehienez.

B) LEHEN HEZKUNTZA. BIGARREN ZIKLOA, 3. eta 4. mailak.

Edukia: gai libreko ipuinak. Egileek lanak marrazkiekin/irudiekin osa ditzakete.

Luzera: 3 orri alde batetik, gehienez.

C) LEHEN HEZKUNTZA. HIRUGARREN ZIKLOA, 5. eta 6. mailak.

Edukia: bi modalitate.

1. Gai libreko ipuinak. Lanak marrazkiekin/irudiekin osa daitezke.

Luzera: 4 orri alde batetik, gehienez.

2. Bertso paperak. Luzera: 6 kopia, 3 zortziko txiki edo zortziko handia.

AURKEZPENA.

Nola: lanak gutun-azal itxi baten barruan aurkeztuko dira.

Azalean argi eta garbi adierazi behar da:

1. Egilearen izengoitia
2. Ikasmila
3. Lehiaketako zein modalitatetan aurkeztu den (ipaina edo bertso paperak).

Gutun-azalaren barnean honako hauek sartu behar dira:

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa - Navarra

948 13 22 22
948 01 20 12
012

ansoain@ansoain.es
www.ansoain.es



Lehiaketarako aurkezten den lana

Beste gutun-azal itxi batean adierazi behar dira izena eta bi deiturak, helbidea, telefonoa eta ikastetxea.

SARIAK.

Sari bat emanen da modalitate bakoitzean:

100 euroko txartela liburuak eta joko didaktikoak erosteko. Berdinketa balego saria bi irabazleen artean banatuko da.

Egile berak ezin izanen du modalitate berdinean lan bat baino gehiago aurkeztu.

AURKEZTEKO EPEA 2026eko ekainaren 24an 14:00etan bukatuko da.

NON: Antsoaingo Udalean.

INFORMAZIOA: certamenes.literarios.ansoain@gmail.com